
ZIZKOITZ
LEPOKO
HARRI IRATZARTUAK



Maurice ABEBERRY naît à Biarritz le 14 décembre 1926. Ses études se dérouleront à l'école communale Jules-Ferry, au Lycée de Bayonne et à la Faculté de Droit de Bordeaux dont il sortira en 1949 Docteur en Droit.

Lorsque son frère Pierre, avocat, entre en 1952 dans les ordres, il devient à son tour avocat. Membre du B.A.C., club de pelote basque et des Ballets Basques de Biarritz «Oldarra», il en devient le Président.

Féru de jazz, il est l'un des fondateurs du Hot-Club de Bayonne-Côte Basque.

Avocat au registre étendu, Maître Abeberry est surtout perçu comme un spécialiste du pénal et du procès d'assises.

De son mariage avec Ysabel Magescas naîtront deux enfants, Xavier et Alan.

Son éloquence et sa conviction contribueront en 1953 à son élection au Conseil Municipal de sa ville.

Co-rédacteur en 1963 de la Charte d'Itxassou, il se dévoue longtemps seul à la défense des réfugiés politiques basques. Cette situation le place forcément en marge des honneurs auxquels il aurait pu prétendre.

Dans le monde sportif, il parvient aux Présidences de la Ligue du Pays Basque puis, en 1972, de la Fédération Française de Pelote.

Il entre au Comité Olympique Français. Il représente la pelote en plusieurs endroits du monde, dont les Jeux Olympiques de Mexico. Il est désigné en 1986 par A2 meilleur dirigeant sportif de l'Hexagone.

Il fait entrer la pelote à la Fédération Pizkundea qui regroupe les associations culturelles du Pays Basque Nord.

Amateur depuis son adolescence scoute de vie en plein air et de randonnées, c'est au cours d'une promenade à Larrun (la Rhune) le 21 février 1988, par une claire journée dominicale, qu'il succombera au col de Zizkoitz.

## EGIAREN EGARRIZ

Zure harriari
kaska kaska kaska
Egunak urteak
kaska ta kaska
Fereka eta kaska
Egunak urteak
Kaska ta kaska
Atzo moldatu xilopi hartarik
Odola ere dario
Xortaka xortaka
Zure odola dario
Ezagutzen dut
Eta zu zure harriari
Kaska ta kaska
Munduak gorde nahi lukeen
Poesiaren arnasa
Zure harriari eman arte
Egunak urteak
Kaska ta kaska
Fereka eta kaska
Munduak sekula ezin itzalizko
Poesiaren arnasa
Zure harriari eman arte
Egunak urteak
kaska ta kaska
Fereka eta kaska
odola ere dario
Orain xilopia bakoitzetik
Xortaka xortaka
Eta azkenean
Zure egiaren egarriz
Eta bakartasunean
Munduarentzat
Zure harrian duzu
Betiko kokatu
Hilgarri ez den
Bizia.



PAR SOIF DE VERITE

A taper taper taper
Sur ta pierre
Des jours et des années
A taper et taper
Caresser et taper
De la cavité hier façonnée
Même du sang a coulé
Goutte à goutte
C'est ton sang
Je le reconnais
Et toi à taper et taper
Sur ta pierre
Jusqu'à lui donner
Le souffle de la poésie
Que le monde voudrait étouffer
A taper et taper
Des jours et des années
A caresser et taper
Jusqu'à donner à ta pierre
Le souffle de la poésie
Que le monde n'éteindra jamais
A taper et taper
Des jours et des années
Même le sang a coulé
Goutte à goutte
De chaque cavité
Mais à la fin
Par ta soif de vérité
Et dans ta solitude
Tu as fixé à jamais
Dans ta pierre
l'immortelle vie.

Henriette AIRE



## Pantxua SAINT-ESTEBEN

Uztaritzen sortua, Azkainen bizi.
Bederatzi urtetan, musikan trebatzen hasten da eta akordeoia joiten ikasten du.
Hamalau urtetan, eztai eta herrietako dantzaldiak alegeratzen ditu.
Hogeitabat urtetan, EL FUEGO orkestra muntatzen du. Denbora labur barne, ospe haundikoa bilakatuko da eta euskal kulturaren aberastasunak ezin hobeki preziaraziko ditu.
Hogeitazazpi urtetan, bere lehen zizel obra moldatzen du. Geroztik, bide beretik dabil, burdina, egurra, harria landuz.
Azken urte hauetan, artegintzari errotik emana, bere herriaren eta mundu osoaren erdian bizi da ildo berri eta ustegabekoak etengabe ikertuz, tematsuki, baitezpadakoaren eske.

Né à Ustaritz, vit à Ascain.
A 9 ans, il s'initie à la musique et apprend l'accordéon.
Dès 14 ans, il anime mariages et bals populaires.
A 21 ans, il forme l'orchestre EL FUEGO qui, en peu de temps, deviendra célèbre. Cette formation, menée de mains de maître, contribuera à mettre en valeur, sur la place publique, de façon moderne, les richesses de la culture basque.
A 27 ans, il forge sa première sculpture. Depuis, il poursuit sa démarche travaillant le fer, le bois et la pierre.
Ces dernières années, s'adonnant exclusivement aux arts plastiques, il vit pleinement au coeur de son pays et du monde, ne cessant d'explorer des voies originales et surprenantes dans sa quête perpétuelle de l'essentiel.



Miarritzen, 1926.eko abenduaren 14ean sortzen da Maurice ABEBERRY.
Herriko Jules-Ferry eskolan eta Baionako Lizeoan egon ondoan, 1949an Bordaleko Unibertsitatean bururatzen ditu bere ikasketak zuzenbide Doktoregoa erdietsiz.
Pierre, bere anai abokata Dominikano ordretan sartzen delarik 1952an, Maurice ere abokat bilakatzen da.
Miarritzeko B.A.C. pilota elkarteko eta «Oldarra» dantza taldeko lehendakari izendatzen dute.
Jazz-musikazale errabiatua, Baiona-kostaldeko Hot-Club delakoaren abiatzaileetarik da.
Hedadura haundiko abokata, Abeberry Jauna penal eta Asisetako auzietan berezitua da.
Ysabel Magescas anderearekin ezkondu eta bi seme mundura datoz : Xabier eta Alan.
1953an, bere kar eta segurtamenak herriko kontseilura daramate.
1963an, Itsasuko Agiriaren idazletarik bat izan eta, luzaz bakarrik agertuko da Euskal iheslari politikoen abokat defentsatzaile. Horregatik, mereziko zituen ohoretarik baztertua izanen da.
Kirol munduan, Euskal Herriko Pilota Liga eta Frantses Federakuntzako Lehendakaritzetara heltzen da. Frantses Komite Olinpikoan sartu eta, munduan zehar dabil pilotaren mezulari, hala nola Mexico-ko Joko Olinpiko famatuetan.
1986an, A2 Telebista gatean, Frantziako kirol arduradun hoberen bezala hautatua da. Pizkundea, euskal kultur elkarteak biltzen dituen federakuntzan, sar erazten du pilota jokoa.
«Scout» gazte garaietik mendizale amorratua, Larrun kaskora doalarik, 1988.eko otsailaren 21ean, igande goiz argi batez, azken hatsa botatzen du, Zizkoitz lepoan.








**«ZIZKOITZ LEPOKO HARRI IRATZARTUAK», Maurice ABEBERRYren omenez**
**«LES PIERRES REVEILLÉES DU COL DE ZIZKOITZ» en hommage à Maurice ABEBERRY**

- **Oeuvre réalisée par Pantxua SAINT-ESTEBEN grâce à la participation** des souscripteurs de l'ASSOCIATION HOMMAGE A MAURICE ABEBERRY • de la FEDERATION FRANÇAISE DE PELOTE BASQUE • du BARREAU DE BAYONNE • de l'INSTITUT CULTUREL BASQUE • de la COMMUNE D'URRUGNE • de la S.H.E.M. - TRAIN A CREMAILLERE DE LA RHUNE
- EGIAREN EGARRIZ - Poème d'Henriette AIRE dédié à Pantxua SAINT-ESTEBEN, paru dans le livre du même titre et dans «l'Anthologie de la poésie basque contemporaine»
- Maurice ABEBERRY : Photo DANIEL.

Le dépliant ZIZKOITZ LEPOKO HARRI IRATZARTUAK a été produit par :
EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA INSTITUT CULTUREL BASQUE
*Photos, conception et impression :*
Imprimerie ALINEA
SAINT-JEAN-DE-LUZ